



12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.

13. artikulua. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea eta datu pertsonalen babeserako eskubidea.

1. Adingabeen babes juridikoari buruzko legeria organikoan jasotakoarekin bat:

a) Haur eta nerabeek eskubidea dute ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako, eta eskubide horretan sartzen dira familiaren egoitzaren eta gutunen bortxaezintasuna, bai eta komunikazioen sekretua eta haien ohorearen eta izen onaren kontrako erasoen aurrean babestea ere.

b) Baldin eta aurreko letran aipatzen diren eskubideak urratu egiten badira informazioa jendartean hedatuz edo haur eta nerabeen irudiak edo izenak hedabideetan erabiliz, eta horrek zilegi ez den intromisioa badakar haien intimitateari, ohoreari edo izen onari dagokionez, edo haien interesen aurkakoa bada, orduan, Fiskaltzari horren berri emanen zaio eta legean aurreikusitako kautela eta babes neurriak hartzeko eskatuko da eta, hala badagokio, kalte-ordainak ere bai eragindako kalteengatik. Eta hala jardutea bidezkoa izanen da haurrak, nerabeak edo haren legezko ordezkariak baimena eman badute ere.

c) Aurreko letran aipatzen diren kasuetan, haur edo nerabeen legezko ordezkarien lege-akzioak galarazi gabe, Fiskaltzak ere jardun ahal izanen du, bai ofizioz, bai haurrak edo nerabeak berak eskatuta nahiz beste edozein interesdun fisiko edo juridikok zein erakunde publikok eskatuta.

d) Haur edo nerabeen gurasoek edo haien zaintza dutenek eta botere publikoek errespetatu egingen dituzte eskubide horiek, eta babestu ere bai beste batzuek eraso zergo.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du bete dadila datu pertsonalen babesari buruzko araudia, eta haren zabalkundea egingen du, haren berri izateko. Bereziki zainduko du adingabeen babesa esparru digitalean eta haien eskubide digitalen errespetua, haietaz balia daitezzen Espainiako Gobernuak populazio osoarentzat sustatzen dituen hein berean.

Aurreko informazioa jaso ondoren, inprimaki hau sinatu eta baimena ematen dut, nire semea/alaba Paquita Ansa edo Sarastigorri haur eskolatan matrikulatuta dagoen bitartean, bideoz graba dezaten edo argazkiak atara diezazkioten soilik hezkuntza- eta ikaskuntza-helburuekin, Paquita Ansa haur eskolan edo Sarastigorri haur eskolan "ekoitzitako" irudiek –argazkiak, diapositibak, bideoak, CDak, DVDak, weba...– haurren garapen-eta/edo ezagutza-prozesuak eta egoerak dokumentatu nahi baitituzte.

Gainera, azaldu didate irudi horiek gero ikusi ahalko dituztela eskolako haurrek, hezitzaileek, eskolan lanean ari diren beste langile batzuek, praktiketako ikasleek eta/edo familiek –haiekin egindako bileretan– eta ikusgai egonen direla eskoletako ikus-entzunezko dokumentazioa erakusten den bestelako tokietan, hala nola paneletan, albumetan... Orobat, adierazi jakinarazi zenbait irudi Eskolak ikasturte hasieran banatzen dituen koadernoetan ager daitezkeela. Kontuan izan behar da familiek ikasturtean zehar egindako irudien kopia eskatzen dutela, Haur Eskolako egonaldia gogoan izateko-edo, eta irudi horiek erabiltzaile askoren etxeetan bukatzen dutela.

Bestalde, hezkuntza proposamenen gaineko irudi horiek –betiere gorago aipatutako xede berberetarako– irakasleek, eskolan lanean ari diren profesionalek eta/edo beste eskola edo ikastetxe batzuetan praktiketan dauden ikasleek erabil ditzakete.



Idazki hau sinatuz, hitzematzen dut Haur Eskolan hartutako argazkien eta/edo bideoen kopia ematen zaidanean ez ditudala irudi horiek familia inguru mugatutik harago hedatuko. Era berean, nire gain hartzen ditut eskola horretako irudiekin eta/edo bideoekin egindako CDko edo bestelako edozein euskarri informatikoko edukia erabiltzetik edo hedatzetik eratorritako erantzukizunak, baldin eta gorago aipatutako konpromisoarekin bat ez badatoz. Era berean, aditzera ematen dut ikastetxeak esan didala zein den haurraren ohorearen, intimitatearen eta bakoitzaren irudiaren gaineko gaian dagoen legeria eta, zehazki, 12/2022 Foru Legeko 13. artikuluan ezarritakoa, hots, agiri honen goialdean transkribatutakoa, eta, orobat, eskolak irudi horiek erabiliko dituela. Hartara, bideoak eta argazkiak egiteko baimena ematen dut.

(e)an, 202 ko

aren

(e)an

Haurraren izen-abizenak

GURASOEN EDO LEGEZKO ORDEZKARIEN IZEN-ABIZENAK ETA SINADURAK		
	1 Gurasoa edo Legezko ordezkaria	2 Gurasoa edo Legezko ordezkaria
Izen-abizenak		
Sinadurak		

Zin egiten dut gurasoak/tutoreak bat gatzela eskabide honekin (**Derrigorrez markatu beharrekoa bi gurasoek sinatu ez badute**).

Gurasoak/tutoreak banantze, dibortzio edo desadostasun egoeran gaudela adierazten dut, eta ebazpen judiziala edo indarra duen dokumentazioa aurkezten dut, esaten duena niri bakarrik dagokidala semearen edo alabaren ikastetxea aukeratzea (**Nahitaezkoa, bi gurasoek ez badute eskabidea sinatu edo aurreko laukitxoa markatu**).